

Jardunaldia: EUROPAKO KONTSEILUAREN 70. URTEURRENA (1949-2019) GIZA ESKUBIDEAK ETA DEMOKRAZIA

2019ko abenduaren 2an, “Europako Kontseiluaren 70. urteurrena (1949-2019): giza eskubideak eta demokrazia” izeneko jardunaldia egin zen Kursaal jauregian, Donostian. Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak antolatu zuen jardunaldia, eta jende guztiari zabaldu zitzaion. Hasierako inaugurazio ekitaldian parte hartu zuten, batetik, Eneko Goia Donostiako alkate jaunak eta, bestetik, Maria Angeles Elorza andreak, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak. Lehenak ongi etorria egin zien bertaratutako guztiei, Europako proiektuaren garrantzia eta hura babestu beharra aipatuz, eta bigarrenak labur-labur azaldu zituen Kontseiluaren sorrera prozesua eta lorpenak, eta prozesu horretan Euskadik ere parte hartu zuela gogorarazi zuen.

Inaugurazio ekitaldiaren ostean, adierazpena eta hasierako bi hitzaldiak eginez jarri zen jarduera martxan. Adierazpena Gabriella Baittani-Dragoni andreak egin zuen, Europako Kontseiluaren idazkari nagusiaren ondokoak, Internet bidez. Hala, azpimarratu zuen Europako Kontseilua eta haren erakunde sarea –Giza Eskubideen Europako Auzitegia buruan– oso garrantzitsuak direla Giza Eskubideak eta Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean aitortutako eskubideak demokraziaren aurkako fenomenoetatik eta joeretatik babesteko, eta ardura handia dutela, orobat, gutxiengo kalteberak defendatzeko. Gainera, ez zituen ahaztu eskubide sozialak babesteko egiten dituen ahaleginak. Amaitzeko, Europako Kontseiluaren eta Hitzarmenaren balioak eta helburuak defendatzen jarraitzera deitu zuen Baittani-Dragoni andreak.

Bi hitzaldietatik lehena Manuel Lezertua arartekoak eman zuen. Hasteko, adierazi zuen gaur-gaurkoz axola handia duela Europako Kontseiluak, nazioartekotasunaren aldeko apustu aitzindariak, baita erakunde horrek giza eskubideak eta demokrazia defendatzeko egiten duen lanak ere. Nagusiki, hiru alderdi nabarmendu zituen. Lehenik eta behin, Kontseiluaren historian izandako mugarri nagusiak aipatu zituen: besteak beste, Kontseilua sortu eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmena indarrean jarri edo Giza Eskubideen Europako Auzitegia abiarazi zenekoa; 1971n Europako Gutun Soziala sinatu eta Batzordea sortu zenekoa; Auzitegiaren erreformak ekarritako iraultza; edo Veneziako Batzordearen sorrera.

Bigarrenik, azpimarratu zuen XXI. mendean nolabait bizkortu dela Kontseiluaren jarduera eta hein batean espezializatu egin dela, orokorretik partikularrerako bilakaera izan baitu (hala sortu dira tortura prebenitzeko batzordea, emakumeen

aurkako indarkeriari kontra egiteko aditu taldea, ustelkeriaren aurkako taldea, edo hizkuntza-gutxiengoak defendatzekoa, eta abar).

Azkenik, Europako Kontseiluaren eta Europar Batasunaren arteko funtsezko harremana ekarri zuen hizpidera. Hasteko, adierazi zuen edozein estatuk bete behar dituela Kontseiluaren baldintzak kide izateko, eta orobat gogorarazi zuen nola hasi ziren haien artean erlazionatzen eta koordinatzen, eta zein garrantzitsua izan zen Europar Batasunaren Tratatuaren 6. artikuluari egindako aldaketa (Lisboakoa), Batasuna Hitzarmenarekin bat egiteko mandatu aurreikusten zuena, Europako Justizia Auzitegiaren 3/14 Irizpenaren ondorioz lehen saiakerak porrot egin eta gero.

Hitzaldia amaitzeko, Arartekoak azpimarratu zuen Europako Kontseiluarentzat oso garrantzitsua eta interesgarria izan dela Herriaren Defendatzailearen instituzioa. Oraindik orain, erakunde hori babesteko eta sustatzeko printzipioak ezarri ditu Veneziako Batzordean (Veneziako printzipioak).

Bigarren hitzaldia Manuel Motobio jaunak eman zuen, Espainiak Europako Kontseiluan duen enbaxadore ordezkari iraunkorrak. Hark "Europako Kontseiluko kide izatearen esanahia eta ondorio juridikoak" jorratu zituen bere konferentzian. Abiapuntu gisa, enbaxadoreak gogora ekarri zuen Europako Kontseiluak benetako konpromisoa duela demokraziaren, zuzenbideko estatuaren eta giza eskubideen alde, eta egiazkotzat eta ukigarritzat dituela, ez abstraktutzat. Are gehiago, bereziki Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren eta Auzitegiaren jardueraren bitartez gauzatzen dira, eta, era berean, Europako Kontseiluak indarrean dituen 200etik gora hitzarmenetan zehazten. Nabarmendu zuen Kontseilua dela Europako zuzenbidearen eta elkarbizitzaren oinarria eta bermea, eta harekin batera jokoan dagoela egungo "kontratu soziala"; hau da, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren, Europako Gutun Sozialean, Europar Batasunaren balioen sisteman eta itzaropenaren oroimenaren alkimian oinarritutakoa. Europako Kontseilua estatuen nazioarteko ekintzaz baliatzeko gune bat da, baina, horrekin batera eta nagusiki, bere helburuak eta balioak defendatzen dituen nazioarteko eragile bat ere bada, eta ordenamendu juridikoan, politika publikoetan eta gizarteko maila guztietan eta eragile guztien artean du presentzia. Hitzaldia amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak Euskadin Europako Kontseilua nabarmentzeko agertu duen interesa eta konpromisoa azpimarratu zituen.

Jarraian, hasierako hitzaldien ondotik, parte hartzaileen bi mahaien txanda ireki zen. Kontseiluaren bi zutabe handiei eskaini zitzaizkien: alegia, Giza eskubideen zutabeari eta Zutabe demokratikoari, hurrenez hurren.

Lehen mahaiak bi parte hartzaile bildu zituen. Lehenik eta behin Tatiana Termacic andreak hartu zuen esku, Europako Kontseiluko Giza Eskubideen eta Zuzenbide Estatuaren Zuzendaritza Nagusiko Koordinazioko eta Nazioarteko Lankidetzako Atalaren zuzendariak. Giza Eskubideen Europako Hitzarmena eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren arteko harremana izan zituen hizpide bere hitzaldian eta, zehazki, osagarritasun edo bikoiztasun erlazioa duten aztertu zuen. Biak ala biak elkarrekin existitzen direla egiaztatu ondoren, eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak Europar Batasunaren oinarrizko eskubideen sistema egituratzeko funtsezko eginkizuna bete duela gogoratu ondoren, bereziki Oinarrizko Eskubideen Gutunean, Termacic andreak zenbait alderdi erabakigarri azpimarratu zituen: adibidez, zein garrantzitsua den Europar Batasunaren 6.2 artikulua Lisboako erreformaren ondoren, eta zer-nolako eragina izan duen Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak Gutunean aitortutako eskubideetan eta gutunaren interpretazioa eta aplikazioa zuzentzen duten irizpideetan (52.3 eta 53 artikululak, edo babes mailari buruzkoa).

Hitzaldi horretan, gainera, arriskuak eta oraindik lortu gabeko erronkak aipatu zituen: kasurako, Europar Batasunak oraindik berretsi gabe duela hitzarmena, eta horren ondoriozko arazoak (Batasunaren jarduketetan “eremu grisak” agertu baitira hitzarmeneko sistemari dagokionez, adibidez, Frontex agentziak etorkinak sorlekura itzultzeko egiten dituen jardueretan), edo hitzarmenean eta Batasunean aitortutako eskubideen zaintza estandarren artean ager litezkeen diferentzien ondoriozkoak, nahiz eta argi egon hitzarmenak gutxieneko atari gisa funtzionatu behar duela zaintza parametroei dagokienez. Hitzaldia amaitzeko, adierazi zuen garrantzitsua dela auzitegiek elkarrekin truke judiziala izatea eta Batasunak hitzarmenarekin bat egitea.

Lehen mahaiko bigarren parte hartzailea Ana Salinas andrea izan zen, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren *ad hoc* epailea eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna Malagako unibertsitatean. “Oinarrizko eskubideak eta askatasunak sustatzea eta bermatzea” izan zen haren azalpenaren ardatza. Hasteko, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak estatu kideen gain duen eragina eta jurisprudentzia aipatu zuen Salinas andreak, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren izaera “iraultzailea” harturik abiapuntu. Hala nabarmendu zuen, besteak beste, Auzitegia hitzarmenaren lurraldez kanpoko aplikazioari ireki zaiola, eta arian-arian hedatu egin dituela hitzarmenean aitortutako eskubideak eta horien aplikazio eremua. Beste bi kontu ere hartu zituen ahotan: batetik, hitzarmena sistema subsidiarioa dela izatez, estatuei eskubideen babesean laguntzea baitu xede, eta oso eginkizun garrantzitsua betetzen duela eskubide jakin batzuen

aitortzan eta zaintzan (zigorraren atzeraeraginik eza, zaintza judizial eraginkorra, eta abar); bestetik, lurraldez gaindiko doktrinak giza eskubideen babesa indartzen duela Europar Batasunaren mugetatik harago.

Bestalde, bigarren mahaia Europako Kontseiluaren “Zutabe demokratikoa”ri eskaini zitzaion, bi gai lantzeko asmoz: “Demokrazia eta lurralde kohesioa” eta “Balio demokratikoen defentsa”. Mahai horretan hiru hizlari bildu ziren. Lehenbizi Herwig van Staa jaunak hartu zuen parte; hau da, Europako Kontseiluaren Tokiko eta Eskualdeko Botereen Kongresuko lehendakari ohiak eta Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordeko lehendakariordeak. Gai honi heldu zion bere hitzaldian: “Tokiko demokrazia Europako demokraziaren oinarri: Tokiko Autonomiaren Europako Gutuna eta Kongresua haren kontrol organo gisa”. Van Staa jauna aipatutako kongresuaren eta gutunaren jatorriari eta bilakaerari buruz hitz eginez hasi zen; ondoren, azaldu zuen oso garrantzitsuak direla tokiko dimentsioa sustatzeko eta eginkizun nabarmena betetzen dutela tokiko eta eskualdeko agintarien eskubideak babesteko eta lurraldeko demokrazia bermatzeko garaian, tokiko eta eskualdeko hauteskundeetako behatzailearen funtzioaren bitartez eta gobernu onaren, finantzaketaren eta zerbitzu publikoen aditu batzordeen gisako instantzien bitartez.

Ondoren, Jokin Bildarraitz jaunak hartu zuen esku, senataria eta Europako Kontseiluko Batzarraren kideak. Bere hitzaldian, Batzarraren funtzionamenduarekin lotutako alderdi garrantzitsuak deskribatu zituen, demokraziaren, zuzenbideko estatuaren eta giza eskubideen defentsari dagokionez; Batzarrak barne osaeran – taldeetan– izan dituen oreka aldaketei egin zien erreferentzia; bere buruari galdetu zion zenbateraino sinesten duen Kontseiluaren sisteman parte hartzen duen estatu kide bakoitzak sistema horretan, eta zenbaterainoko konpromisoa duen; eta Batzarrak gaur egun aurrean dituen arazo larriak azaldu zituen: adibidez, immigrazioa edo agenda klimatikoarekin lotutakoak, eta ezinbestean gainditu behar dituen barne kontraesanak, estatuak giza eskubideak betetzen ez dituztenean, baina Kontseiluko kide izatea funtsezkoa denean estatu horietako herritarren babesa eta jurisdikzioa bermatzeko.

Mahai horretako hirugarren hizlaria Gemma Pinyol-Jiménez andrea izan zen, Instrygies-eko Migrazio eta Aniztasun Politiken zuzendaria eta immigrazio gaiei buruzko ikertzaile aditua. Balio demokratikoak auzitan jartzeko joera eta Europako Kontseiluak horren aurrean emandako erantzuna jorratu zituen. Hitzaldiaren

hasieran, Europako Kontseilua identifikatzeko eta nabarmentzeko dauden arazoak azpimarratu zituen (adibidez, Europar Batasunaren Kontseiluarekin nahasten delako), eta adierazi zuen beharrezkoa dela belaunaldi berriak Kontseiluaren, haren erakunde-sarearen eta balioaren jakitun izatea eta horiekin identifikatzea. Azaldu zuen gaur egun zabaldu egin dela landu behar dituen auzien eta arazoen esparrua (diskriminazioa, immigrazioaren ondoriozko arazoak, eta abar), eta bereziki aipatu zuen gorroto diskurtsoen eta krimenen arazoa eta egungo jokalekuan bakearen, justiziaren, giza eskubideen, bizikidetzaren eta aniztasunaren kulturaz hitz egiteak duen garrantzia. Hitzaldia amaitzeko, arrakastatzat jo zituen Europako Kontseiluaren existentzia eta lana, baina, aldi berean, gizarteari bi alderdi horiek hobeto azaldu behar zaizkiola adierazi zuen.

Bi mahaietako jarduera burutu zenean, amaiera hitzaldiarekin jarraitu zuen jardunaldiak, Simon Tonelli Europako Kontseiluaren Lankidetzaren Juridikoko Atalaren zuzendariaren eskutik. Lankidetzaren Juridikoaren Europako Batzordea izan zen Tonelli jaunaren hitzaldiaren ardatza. Europar Batasuneko batzorde zaharrenetakoa da, eta praktika juridikoa eta estandar juridikoak hobetzea da haren zeregina. Batzordeak 60 hitzarmen eta 90 gomendio baino gehiago egin ditu orotara, eta ekarpen nabarmena izan dira Europa mailan zuzenbidea eguneratzeko eta eraberritzeko; botere judizialaren independentzia bermatzeko, demokrazia ororen ezinbesteko baldintza den heinean; eta estatuei aurre egiteko prozesu judizialak martxan jartzen dituzten pertsonen konfidentzialtasuna eta anonimatua ziurtatzeko. Epaileen independentzia hobetzeko asmoa duen Sofiako Ekintza Plana nabarmendu zuen (2020. urtean antolatuko den Lankidetzaren Juridikoko Batzordean eguneratzeko dago) eta, amaitzeko, oraindik gauzatu gabe dauden zenbait ekimen aipatu zituen: besteak beste, Europako jurisdikzioaren esparruko abokatuen jardunari buruzkoak eta justizia elektronikoen garapenari dagozkionak. Herrialde batzuetan jadanik abiarazi dira halakoak, eta erabakiak gardentasun eta berme osoz hartzen direla ziurtatzeko analisiak eta gomendioak egin behar dira orain.

Iñigo Urkullu lehendakariak itxi zuen jardunaldia, eta Euskadik giza eskubideekin eta demokraziarekin konpromiso irmoa duela jakinarazi zien bertaratutakoei; hain zuzen, Kontseiluaren espazioetan aritzen den euskal ordezkaritzan ikus daiteke konpromiso horixe. Gogorarazi zuen Europako Kontseiluak garrantzi handia izan zuela European integratzeko prozesuan, erakunde aurrendari gisa, eta bertan parte hartu zuela Agirre lehendakariak. Egungo paradigma-aldaketaz ohartarazi zuen, nazioarteko zenbait eragilek multilateralismoa zalantzan jartzen dutela, eta baita desazelerazio ekonomikoaren

itzalaz eta aurrerabide globalaren oinarritzko elementuak arriskuan jartzeaz. Errealitate horren aurrean, komeni da Europako Kontseiluak oinarritzko askatasunak zaintzeko agertu duen konpromiso irmoari eustea. Konpromiso hori Euskadik Gernikako Estatutuaren bidez bereganatu zuen eta egun berresten du, Eusko Jaurlaritzaren ekimenen bitartez, pertsonak Europako ekintzaren jomugan jartzeko eta, norberaren bereizgarriak alde batera utzi gabe, ikuspegi kosmopolita eta mundutarra elikatzen jarraitzeko konpromisoa dela bide.